

Leku komun gutxi hainbeste espazio publikoren artean.

Laburpena: Eraldatzen ari den jendarte honetan, espazio publikoan ere orain arte erreparatu gabeko errealitateak bistaratzen ari dira; gero eta gehiago pribatizatzen ari diren espazioak berreskuratu nahi dituzte herritarrek eta prozesu berri horretan parte hartuko duten teknikarien funtzioez hausnartu beharra dago.

Gako-hitzak: espazio publikoa, hirirako eskubidea, parte-hartzea, hirigintza barneratzailea, politika publikoak.

Abstract: Within our changing society, new realities that were previously invisible are emerging even in public spaces; people want to appropriate the increasingly privatized spaces again, and there is a need for reflecting on the roles of the technicians involved in such processes.

Keywords: public space, the right to the city, participation, inclusive urbanism, public policy.



Ianire de Andres Olabarria

Arkitekturen lizentziatua eta Hiri Politikak eta Hiritartasunean aditua.


Jasotze data: 2015-05-22 / Onarpen data: 2015-01-20

Krisiak orain arteko politika publiko jasangaitzak azaleratu dizkigu; politikariek biztanleriaren ongizatea eta beharriaz oinarritzat hartu beharrean, interes ekonomiko eta pribatuen alde jokatu dutela ikusi dugu. Espazio publikoan zehazki, pribatizazio eta oztopo fisikoak zein hiritartasun-araudiak eta oztopo legalak hain nabarmen egin direnean, jendearen desadostasuna eta espazioen jabetza berreskuratzeko determinazioa areagotu dira, eta, horren aurrean, administrazioak espazio publikoa sortzeko dinamiketan parte-hartze prozesuak barneratu ditu, herritarren iritzia ezagutu eta jasotzeko antza.

Administrazioetik zein hiritarren erakunde alternatibo eta mugimendu sozialetatik datozen egitasmo eraldatzaileak asmo onez betetako ahaleginetan gelditzea nahi ez badugu, espazio horietan zer eta nola gertatzen den errotik aztertu beharko dugu. Espazio publikoa jendartearen agertoki eta sortze-gune bada, krisiak azaleratutako politika suntsitzaileei buelta emanez, berau diseinatzeko prozesuari ere buelta eman eta beste era batera aritu beharko dugu. Biztanleak prozesuaren hasieratik partaide aktibo izateak orain arte hirigintzan lan egin dugunon metodologian eraldaketa sakona eskatzen du. Teknikariok, zehazki, gure lan-metodologia eta irizpideen inguruan hausnarketa sakona egin eta gaurko egoerari egokituko zaion norabide berria hartu beharra dugu, gaur egungo benetako errealitateari erantzunez beharrezkoa den ekarpena egingo duena.

Hirirako eskubidea eta hiritarkeria

Lorea Agirrek irakurri zigun 19. Korrikaren amaieran: «Lekua hartu, plazan sartu. (...) Plaza erdira etorri eta lekuaz jabetu. (...) Euskara plaza publikoan jokatzen da,



eta plazaren izaera publikoa euskaran» (Agirre, 2015). Eta kasu honetan, «plaza»ren dimentsio fisiko zein sozialari egingo zion erreferentzia, hori baita espazio publikoa, jendartearen mamitzen eta gauzatzen den espazio fisikoa, jendartearen bertan forma hartu eta hari neurria hartzen diogun hedadura ezaguna. Espazio publikoa, gune eta izaera pribatuak, partikularrak, batzen eta harremanetan jartzen dituen espazioa izanik, guztiok era kolektiboan erabiltzeko eskubidea dugun lur-eremua da; herrien izaera eta identitatea eragiten eta erakusten dituen, memoria kolektiboa jasotzen eta transmititzen duena, elkarbitza azaleratzen eta ahalbidetzen duena, bizi garen sistema onartu edo aldarazteko gunea izango dena. Plazan parte hartzeak jendartearen parte hartzea esan nahi du, eta alderantziz. Hirian izan eta egoteko eskubidea jendartearen lekua izateko eskubidea da, Jordi Borjaren esanetan, «gaur egungo hiritarren eskubide berriak biltzen dituen eta marko demokratiko baten barruan eskubideok exijitzeko oinarria ematen duen kontzeptua da hirirako eskubidea» (Borja, 2011). Eta demokrazia krisian dagoen une honetan, hirirako eskubidea ere krisian dago.

Espazio publikoaren oinarrizko bokazio hori galbideratu duten politika publikoak areagotzen joan dira, gure herri eta hiriak, ekonomia- eta turismo-lobbyen interesen alde (eta zoritxarrez, politikari batzuen interes partikularren alde) merkantilizatu, pribatizatu eta zelatatuz. Praktika horren erakusle garbia da, adibidez, Bartzelonako Güell Parkean gertatutakoa. Parkearen azpiegiturak zaintzeko eta mantentze-lanetarako diru-sarrerak bermatzeko, udalak, 2013ko urritik aurrera sarrera mugatzea eta kobratzea erabaki zuen (inguruko hiru auzoetako biztanleei izan ezik). Horrek espazioaren espezializazioa eta klase-bereizketa dakar. Alde batetik, Güell Parkea, turistentzako espazio bilakatu delako, egunerokotasunean era natural eta espontaneoan sortzen diren erabilerak kanpoan utziz, eta beste aldetik, diru publikoarekin ordaintzen den azpiegitura, gutxi batzuen eskura jarri dutelako, 8 euroko sarrera ordaintzeko aukerarik ez duten hainbat herritar (gehiengo) baztertuz.

Hori gutxi balitz, irabazi-asmoak gailentzen diren espazio horretan zalapartarik egin ez dezagun, «hiritarkeria» ideala berrezarri nahi dute araudi berriak betetzera «gonbidatuz». Plaza guztiona dela sinetsaraziz, guztion elkarbitza osasuntsu eta bakezale baten alde, jarrera aproposak erakusten dizkigute, eta «gizatasuna» praktikan jartzea kostatzen zaienez, bada isunak eta kartzela-zigorra, ikas dezaten. Horren adibide dira azken hamarkadetan gure hirietan indarra hartu duten Zibismoaren Ordenantzak (Donostian 2004an, Iruñean 2006an, Bilbon 2010ean). Jule Goikoetxeak horrela azaltzen du: «Hiritarkeriak obedientzia ilustratua aldarrikatzen du, partikularitasunez garbitutako (ez klaserik ez generorik ez naziorik ez emoziorik) espazio publiko unibertsalak izan daitezela geure hiriak (Bilbolandia-Singapur eredu), eta titirik, odolirik, usainik eta azalik gabekoak geure hiritarrak (Urkullu eredu)» (Goikoetxea, 2015). Espazio publikoa lapurtzen ari dira, fisikoki zein sozialki. Erabilera publikorako lur-zatiak gutxitzeaz gain, erabilera kolektiborako geratzen diren leku apurretan nolakoak izan behar dugun definitu nahi dute. Gure lana, esparru horiek berreskuratzea da.

Gatazkarik gabeko espazioa, espazio utopikoa da

Politikariek (eta teknikariek) legitimitatea galdu duten garai honetan beraz, espazio komunak beste abiapuntu batzuetatik «eraikitzen» (forma, itxura, giroa, identitatea, erabilera-dinamikak...) hasi behar dugu. Espazio berria, «kanpotik» (instituzioetatik, administrazioetik) emanda datorren agertokia izan beharrean, egunerokotasunean gertatzen diren erabileren, joan-etorrien, ohituren eta gatazken emaitza (Lefebvre, 1972-76) izatea bermatu behar dugu. Bertan parte hartzen dutenen eta hartuko dutenen (bizidun zein bizigabe) etengabeko elkarriketa eta harremanen ondorioa izango da espazio komun berria, etengabeko negoziaketaren ondorioa; hori da parte hartzea. Espazio publikoa guztiona izango dela ziurtatzeko, espazio berneratzaileak bermatzeko, alde aurretik, bertan jokatu duten kolektibo eta norbanako guztiak azalatu eta errekonozimendu-prozesua egin beharra dago, eta ulertu, prozesu horretan kezka, arazoak, mesfidantzak, errefusak eta desadostasunak egongo direla. Manuel Delgado horrela azaltzen du: «Hiriko gatazka pleonasmoa da, hiriko bizitza definizioz baita gatazkatsua (...) Nik funtsean, izatez gatazkatsua izanik, azkenean era batera edo bestera elkarren arteko sostengua eta solidaritatea ekoizten dituen bizitza sozialean sinesten dut» (Delgado, 2015).

Eta ekoizpen hori gauzatzeko ezinbestekoa izango da dugun aniztasun soziala bere osotasunean ulertu, ezagutu eta onartzea. Gure jendartearen eraldatzen ari da. Orain arte ezkutuan egondako kolektiboak bistaratzen ari dira (emakumeak, kultura eta erlijio anitzeko pertsonak, umeak, nagusiak, LGTBak...), eta aniztasun horretan guztiok aurreiritzirik gabe toleratzen eta onartzen garena pentsatzea utopikoa da, irreal. Elkarren arteko ezberdintasunak aberasgarritzat jotzen ditugun garaiotan, xenofobia-jarrerak ezkututzen dituen azpijoko bat nagusitzen ari baita; izan ere, estatu «aurreratu»etan bizi garenok gero eta gehiago nahasten ditugu pluralismoa eta aniztasun kulturala. Pluralismoa aldarrikatzea, norbanako guztiak desberdinak garena defendatzea da, baina jendartearen sailkatze joera errotuegia dugu, eta zaila egiten zaigu gure «tribua» zein den eta zein ez den ez desberdintzea. Saillkapen hori gure estatus sozial eta ekonomikotik egiten dugu, «gu» eta «haiak» bananduz, eta bazterketa hori kolektiboen egoera ekonomiko zein legalagatik dela esatea okerra denez, kulturaren izenean egiten dugu, bazterketa soziala naturalizatuz eta areagotuz, jendartearen aberasgarritasunaren izenean. Gaur egungo benetako erronka, beraz, aniztasun soziala, bizikidetzaren batasun bilakatzeko formulak eta dinamikak jendartearen errotzea da, horretarako alde aurretik guztiok desberdinak garena eta, beraz, eskubide berdinak ditugula aitortuz eta aintzatetsiz.

Espazio publiko eta pribatuetako botere-harremanak

Hasi gara espazio publikoaren sustraietatik aztertzen, azalatu ditugu kolektibo eta norbanako parte-hartzaileak, eta plazak jendartearen isla diren heinean, bertako botere-harremanak bistaratu dira. Hirian dugun publiko/pribatutasun arazoa, botere-kontua da, non pribatizatu duenak beste edonor bere menpe jar dezakeen. Esparruaren erabilera edo jabetza bereganatu dituenak, bere arauak, ordutegiak, itxurak eta erabilerak inposatu ditu. Bertan jarriko den publizitatea,

mezu ideologikoa, identitatea... eta bertan nortzuk egongo diren ere aukeratuko dute, ahal duten heinean, gure kale eta plazak gero eta gehiago okupatzen dituzten kafetegietako terrazetan adibidez.

Esan bezala, gero eta espazio publiko gehiago manipulatzeko dira turismoaren izenean. Bisitarietarako hiri «politikak» eta «garbiak» nahi ditu administrazioak, bere «marka» duten postalerako hiriak («Vitoria Gasteiz green capital!» edo «Bilbo Berria» adibidez), eta espazioak kontrolpean izateko formularik erabilienak pribatizazioa eta *errepresio prebentiboa* (legalki, lehen aipatutako ordenantzen bidez, eta fisikoki, kalean etzanda edo jarrira ez egoteko objektu deserosoak jarriz, eskaierak kenduz, bakarkako eserlekuak jarriz... (Gonsálvez, 2014)) dira. Horrelako jarrerak direla-eta, espazio publikoak gero eta gutxiago du publikotik. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, 'publiko' hitzak «herriko erakundeei dagokiena; herriaren multzoarena edo multzoarentzat dena» esan nahi du, eta teorian horrela da, baina praktikan ikusten dugu espazio publiko askok galdu dutela herritar multzoarentzat izateko bokazioa, beharizan komunetatik at dauden hainbat interesen menpe galbideratu baitira. Administrazioen zein erakunde pribatuaren eskutik kontrolatzen, menderatzen eta zelatatzen diren espazioek ez dute auzoetako bizimodua eta herritarren egunerokotasunean sortzen diren harremanak askatasunean garatzea ahalbidetzen. Espazio horiek berreskuratzeko, biztanle eta kolektiboen jabekuntzan (Massey, 2009) lana egin beharra dago, boterea, espazio publikoan ere, era demokratikoan partekatuzko; espazio publikoak, elkarlanean, guztion ezberdintasunetatik denon onura ekarriko duen bizikidetzarako espazio komun bilakatzeko.

Teknikaria, espazio komuneko agente bitartekaria

Beraz, espazioa guztiona bada, guztion erantzukizuna eta guztion ekintzen emaitza bada; guztiok bagara espazio komunaren sortzaile eta eraldatzaile, teknikariak, agente bat gehiago besterik ez gara. Eta espazio berri horietan izango dugun rola desberdina izango da, espazioak ulertzeko eta diseinatzeko ikasitako gaitasunaz eta tresnez baliatuko gara gure ekarpena egiteko. Adituak eta neurrian arituak izan arren, ez dugu besteen eskubideak kudeatzeko baimenik ezta erantzukizunik ere, eta, beraz, gure funtzioa ez da erabakiak hartzea izango, ezpada biztanleei euren espazio publikoan sortuko diren gatazken konponbiderako eta elkarbizitzarako erabakiak hartzeko informazioa, tresnak eta baliabideak ematea. Espazio publikoan jokatzeko agente bizidun eta bizigabeen arteko harremanen dimentsio sozial zein fisikoak ulertzeko, sentsibilitatea eta gaitasuna dugu eta itzultzaile-lana egin dezakegu, agenteen arteko bitartekari izan. Eta bitartekari lan horrek bi ardatz izango ditu, bi norabide, horizontala eta bertikala (De Andres, Gorgues, Izquierdo, Martin, 2015).

Alde batetik, teknikarien funtzioa izango da espazio jakin batean gertatzen ari diren egoera eta gatazka guztiak azalerrazte eta bistarazte, eta, ondoren, agente desberdinen artean, bertan bizi eta parte hartzen duten norbanako eta kolektibo guztien artean konponbidea era horizontal batean jorratzea. Agente guztiak kontuan izatea alegia, eta guztiei espazioan jarduteko aukera berdina ematea. Lehenengo,

gatazka eta botere-desberdintasunak ulertzeko informazioa bildu, azaldu, eta eskuragarri egitea. Ondoren, konponbidea bilatzeko tresnak ematea, eta, azkenik, aurrerantzean behin eta berriro sortuko diren gatazkek ebazteko negoziaketadynamikak erakustea, guztiak botere eta parte-hartze parekidea bereganatzen joan daitezten.

Eta beste aldetik, administrazio zein teknikari edo diseinatzaileen eta auzokoen arteko bitartekari funtzio bertikala betetzea. Hirigintzan lantzen diren hizkuntza, formulak, teknikak eta sistemak ezagutzen ditugunez, haien itzulpena eskain diezaiekegu biztanleei, edozeinek ulertuko dituen irudikapen eta azalpenekin. Eta alderantziz, herritarren nahiak eta erabakiak, era tekniko batean interpretatu, diseinatu eta azal ditzakegu, administrazioak edo teknikariek bete ditzaten.

Interpretazio-lan horiek aurrera eramateko, beharrezkoa da hainbat alorretako jakituria eta esperientziarekin jardutea eta horregatik ari dira gero eta indar gehiago hartzen diziplina anitzeko lan-taldeak, zeintzuetan aritzen baitira elkarlanean soziologoak, antropologoak, geografoak, arkitektoak etab. Pluralismoa bermatuko duten espazioak pluralismotik landu behar ditugulako.

Espazio publikoaren oinarrian dauden beharizan hauetatik kontziente garen heinean, teknikariok gaur egunera egokituko den lan-proposamena garatu beharra daukagu. Egia da hirigintzan lan egiten dugunok hartu izan oi dugula proiektuen premisatzat landu beharreko espazioaren aurretiko egoera, baina gehienetan itxura zein funtzionamendu aldetik soilik egiten diren azaleko azterketa horiek ez dira nahikoa. Gainera, teknikariok normalean, espaziotik kanpo kokatzen dugu geure burua, plazan jokatzeko ez duen langilea, kanpotik begiratzen eta diseinatzen duena, bere lana egin eta joango dena, eta jarrera hori ere gaur egungo jendartearen eraldaketara egokitu beharra dago. Teknikaria agente bat gehiago izango bada, plazako jokalaria ere izango delako.

Bibliografia:

- Agirre, L. (2015): 19. Korrikaren mezua.
- Borja, J. (2011): «Espacio público y derecho a la ciudad», in Zenbait Egile *El derecho a la ciudad*, Institut de Drets Humans de Catalunya, Bartzelona.
- Goikoetxea, J (2015): «Hiritarkeria», Berria.
- Lefebvre, H. (1972-76): *Espacio y Política. El derecho a la ciudad II*, Edicions 62, Bartzelona.
- Delgado, M. (2015): “És inacceptable que responsables del Model Barcelona formin part de Barcelona en Comú” <<http://www.elcritic.cat/>>
- Gonsálvez, P. (2014): «Ciudades que pinchan», El País. .
- Massey, D. (2009): «Concepts of space and power in theory and in political practice», Documents d'Anàlisi Geogràfica, 55, 15-26.
- De Andres, I.; Gorgues, J.; Izquierdo, M. eta Martin, A. (2015): «Del espacio público al lugar común. El papel de los técnicos en el nuevo espacio público», Pista Urbana, eldiario.es.